

GORPUTZ-ATALAK



Osatu ilarak: talde bat, ilara bat. Jarri oin-puntetan eta eman buelta bat gelari. Egin lasterketa erreleboka. Nor izan da azkarrena?	Osatu ilarak: talde bat, ilara bat. Eseri. Gurutzatu hankak, zutitu eta gurutzatu gela saltoka, hankak gurutzatuta. Egin lasterketa erreleboka. Nor izan da azkarrena?	Egin zirkuluak sabelean esku batekin, eta jo kolpeak buruan beste eskuarekin: dena batera. Nork lortu du? Batek lortzen badu, puntu bat emango dio taldeari; bik lortzen badute, bi puntu...
Jarri talde batekoak beste taldekoen aurrean, binaka. Begiratu elkarri, eta ez kliskatu begiak. Nork aguantatu du gehiago?	Jarri belauniko eta ukitu lurra kopetarekin. Ezin da lurra eskuekin ukitu. Nork lortu du? Batek lortzen badu, puntu bat emango dio taldeari; bik lortzen badute, bi puntu...	Binaka, jarri elkarren parean, eta jarri boligrafo bat kopeten artean. Gurutzatu gela, eta, han, sartu boligrafoa ontzi batean (ontzia lurrean egongo da). Ezin da eskurik erabili. Egin lasterketa erreleboka. Nor izan da azkarrena?
Osatu ilarak: talde bat, ilara bat. Jarri ezabagoma bat belaunen artean, gurutzatu gela eta sartu ezabagoma ontzi batean (ontzia lurrean egongo da). Egin lasterketa erreleboka. Nor izan da azkarrena?	Lotu soka bat gerrian eta zintzilikatu globo bat atzean: ipurdian geratuko da. Beste taldekide batek lehertuko du globoa. Ezin da eskurik erabili. Lehertu taldeko globo guztiak. Zer talde izan da azkarrena?	Osatu ilarak: talde bat, ilara bat. Sartu denek boligrafo bat ahoan. Altxa burua, jarri plastikozko edalontzi bat buruz behera, eta sartu boligrafoa (boligrafoa ahoan eta edalontziaren barruan egongo da). Pasa edalontzia taldekideei, baina ez erabili eskurik. Nor izan da azkarrena?
Osatu ilarak: talde bat, ilara bat. Jarri arkatx bat goiko ezpainaren eta sudurraren artean. Gurutzatu gela eta sartu arkatza ontzi batean (ontzia lurrean egongo da). Egin lasterketa erreleboka. Nor izan da azkarrena?	Jarri talde batekoak beste taldekoen aurrean, binaka. Jarri bien artean oinetako bat, lurrean. Irakasleak gorputzeko atal batzuen izenak esango ditu (burua, sorbaldak, belaunak, oinak): ukitu atal horiek. "Oinetakoa!" esaten duenean, hartu oinetakoa. Nork hartu du? Galtzen baduzu, kanpora. Irabazten baduzu, aurrera. Bakarrak irabaziko du jokoa.	Osatu ilarak: talde bat, ilara bat. Luzatu besoak eta jarri eskuak aurreko pertsonaren lepoan. Lehenengo pertsonak eskuak aurrera eta gora luzatuko ditu, globo bat hartuko du eta atzera pasatuko du: globoak irristaka eroriko da buruaren gainetik. Globoak bide guztia egin behar du, eta azken pertsonak hartu behar du. Nor izan da azkarrena?